

EUSKAMPUS PROGRAMA COVID-19AREN AURREKO ERRESILIENTZIA

HITZAURREA

COVID-19aren pandemia, larrialdia eta erronka global sanitarioa, zientifikoa, teknologikoa, ekonomikoa, soziala eta politikoa da, eta lankidetzako erantzun konplexuak eskatzen ditu

COVID-19ak eragindako krisialdi sanitarioaren testuinguruan, eta joan den martxoaren 11n Osasunaren Mundu Erakundeak pandemiatzat aitortu ondoren, gaixotasunaren agerraldiaren larritasuna dela eta, gobernuek euste neurriak hartu behar izan dituzte; ondorio sozioekonomiko larriak dakartzate neurri horiek, eta ondorio horiek mundu osoko osasun sistemek jasandako presio larriari gehitu behar zaizkio.

Krisialdi sanitarioa eta hura arintzeko hartutako neurriak ondorio larriak eragiten ari dira ekonomian eta gizartean, abiadura bizian, eta eragina dute nola gizabanakoen eremuan hala eremu kolektiboan, bai ekoizpen jardueran eta eskarian bai erakundeek herritarren beharrei erantzuteko duten gaitasunean.

Adibidez, honelako galderak:

Nola jokutzen du SARS CoV2 birusak? Nola garatu behar da txerto bat eta zenbat denbora beharko dugu txerto eraginkor eta segurua aurkitzeko? Zer prebentzio neurri dira eraginkor eta efizienteak? Nola aprobeitza ditzakegu teknologia digitalak eta adimen artifiziala, bioteknologia eta nanoteknologia egungo krisialdi sanitarioa gainditzeko eta etorkizunean larrialdietarako prest egoteko?

Hona hemen bestelako galdera batzuk:

Nolako etorkizuna izango du Euskadiko, Espainiako, Europako eta munduko ekonomiak? Nola egin behar zaio aurre susperraldiari? Zer gertatuko da Europar Batasunarekin eta nola erantzun behar die EBk halako krisialdiei? Nola aprobeitza dezakegu krisialdia geure burua berrasmatzeko eta dauden negozioak iraultzeko? Egungo krisialdiak trantsizio energetiko/ekologikoa bultzatuko du ala, alderantziaz, oztopatu egingo du? Elkarrekin harremanak izateko eta kontsumitzeko modua aldatu egingo al da? Zer gertatuko da lanaren etorkizunarekin? Nola aldatuko da lan merkatua? Zientzia, azkenean, lehentasunezko ardura izango al da gure gizartearentzat? Nola aldatuko da hezkuntza COVID-19aren ondoren?

Egungo egoerak zuzenean eragindako erronkez harago, sistema ezinbestean pairatzen ari den aldaketa horrek aukera berriak dakartza gizabanakoaren eta kolektiboaren jokabide ereduak berrasmatzeko. Eredu horiek, zientziari eta teknologia berriei esker, diagnostikorako, prebentziorako eta tratamendurako irtenbideak ematen dizkigute eta, halaber, jarduerari heltzeko modu berriak sortzen ari dira sistema publikoetan, negozio ereduetan edo gure jardueran profesionala gauzatzeko moduan (telelana, 4.0 industria, sare sozialak, etab.).

Eremu ugartan (administrazio publikoak, enpresa, gizarte eragileak) zientzia eta teknologiaren arloko irtenbideak eskatzen ari dira, eta gure sistema ekonomiko eta sozialen funts diren printzipioak eta ereduak zalantzan jartzen ari dira, krisialdi sanitarioak eragindako arazo espezifikoak konpontzeaz gain, krisialdi sanitarioaren ondoriozko krisialdi sozial, ekonomiko eta politikoari ere heldu beharko baitzaio. Erronka horiek korapilatsuak direnez, baterako ekintzak sustatu behar dira, diziplina dinamikak gainditu, arazo zehatzei irtenbide espezifikoak eskaini eta mundu hobea sortzeko aukera berriak sortzen dituzten konponbideen bidez.

Euskampus, baterako erantzuna antolatzeko aukera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU), TecNALIA Research & Innovation Fundazioko (TECNALIA), Donostia International Physics Centerreko (DIPC) eta Bordeleko Unibertsitateko (UB) ikertzaileek erantzuteko gaitasun handia erakutsi dute; ildo horretatik, ikerketa proiektu ugari planteatu dituzte, Europan, estatuan, EAEn eta Akitania Berrian I+G+B arloko jarduerak sustatzeko eta babesteko sortu diren deialdi publiko eta ekimen pribatu ugari erantzuteko. Lau erakundeak funtsezko eragileak dira I+G arloan, duten tamainarengatik ez ezik, bikaintasun handikoak direlako, gaitasun osagarri argiak dituztelako eta aliantza estrategikoa dutelako ezarrita elkarrekin. Aliantza estrategikoa hori tresna eta akordio berezien bidez egituratzen eta EUSKAMPUS FUNDAZIOAREN bidez dinamizatzen da, baterako programa eragileen bidez.

Izan ere, Euskampus Fundazioa diziplinarteko eta agente anitzeko lankidetzakatalizatzen duen eragile gisa dago eraberrita, eta bere erakunde babesleen baterako lidergoa sustatzen du, erronka global handiei aurre egiteko eta zientziaren eta teknologiaren eragin soziala maximizatzeko:

- Bikaintasuneko ikerketa zientifiko eta teknologikoa **sustatzen du**, euskal unibertsitate, zientzia eta berrikuntza ekosistemako eragileen arteko lankidetzak, lotura eta integrazioan oinarrituta egiten du lan, mugaz gaindiko bokazioarekin eta nazioarteko dimentsioarekin.
- Bere bazkideak elkarrekin **konektatzen ditu**, baita beharrezko eragileekin ere, horiek metatzen dituzten gaitasunak eta esperientzia are gehiago handitzeko eta gaitasun eta esperientzia horiek erronka sozial eta global handien esku jartzeko.
- Eragileen arteko lotura, lankidetzak, partaidetzak eta inklusioa **errazten ditu**, ikuspegi sistemiko eta diziplina anitzeko baten bidez.
- Aniztasunari heltzeko modu berezi eta propioa **du ezarrita**, tokiko begirada eta bokazio globala, mugaz gaindikoa eta nazioartekoa uztartzen baititu, eta lan egiteko modu hori ikuspegi natural batean oinarrituta gauzatzen du, hots, egungo testuinguruan nagusi den errealitatea multikulturala eta eleaniztuna dela aintzat hartuta.

Bultzatzen dituen edo parte hartzen duen programa eta proiektu guztietan, Euskampusen balio ugari sustatzen ditu, hala nola benetako lankidetzak, baterako

lidergoa, elkarrekiko konfiantza, inklusibotasuna, eskuzabaltasuna eta erantzukizuna, erronka globalei erantzuten laguntzeko eta alait eragin eta balio sozial handiena sortzeko.

Egungo egoeran, mundu ordena berri honetan balioa emateko, eta bere ikuspegi eta misioarekin bat etorritik, Euskampusen programa bat aktibatzea planteatzen du, **erakunde babesleen** eta eta gaitasun osagarriak ematen dituzten beste erakunde batzuen **arteko lankidetzak proiektuak** babestu eta katalizatzeko, proiektu horiek **COVID19arekin lotutako erronka espezifikoetara bideratuta** egonik eta **eragin zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta sozial handia izanik**.

Programa honen bidez babestuko diren proiektuak Euskampusen erakunde babesleetako ikertzaileek planteatu beharko dituzte, funtsezko eta elkarrekin lotutako hiru dimentsiotan funtsetuta:

1. **IKUSPEGI partekatua**. Proiektua definitzea, honako hauek ezarriz: erronka espezifikoak, helburu zehatzak, gauzatu beharreko zereginak, aktibatuko eta mobilizatuko diren baliabideak eta barneko programak/proiektuak, eta/edo oraingo edo etorkizuneko tokiko edo nazioarteko programak/deialdiak, proiektuari esker aplikatu ahal izango direnak.
2. **LIDERGO inklusiboa**. Proiektuak gutxienez Euskampusen kide diren bi erakundek gidatu behar dituzte elkarrekin, eta ahal den neurrian, diziplina artekoak/gaindikoak izan behar dira. Erronketara bideratuta daudenez eta elkarlanekoak direnez, beste erakunde batzuek ere parte har dezakete, proiektuaren diseinua, garapena eta ebaluazioa horiekin partekatze aldera. Argi eta garbi ezarriko dira lantaldeak, erantzukizunak, elkarriketa, dinamikak eta lan fluxuak.
3. **INPAKTU arduratsua**. Proiektuek honako hauek identifikatu behar dituzte: zer emaitza espero diren, zer ekarpen egin nahi zaizkien gure erakunde eta interes taldeei, eta nola txertatzen eta sustatzen diren proiektuan ikerketa eta berrikuntza arduratsuko alderdi jakin batzuk (konpromiso publikoa, sarbide irekia, genero berdintasuna, etika, hezkuntza zientifikoak).

Hori guztia kontuan hartuta, lehia prozesu bat ireki da ikerketa proiektuak hautatzeko, dokumentu honetako Xedapenetan jasotako prozedura eta irizpideei jarraikiz.

Programa honen bidez, gure gizarteak leheneratzea bultzatuko duten eta gure gizarteen etorkizuneko larrialdi egoeren aurrean erresilientzia handiagoko sistemetara igarotzen lagunduko dieten ekimenak garatzen lagundu nahi du Euskampus Fundazioak.

XEDAPENAK

1. artikulua. – Parte har dezaketen erakundeak


1. Euskampus Erakundeei¹ eta Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistemakoak (ZTBES) eta/edo Akitania Berrikoak izanik beste horien kide diren erakundeei zuzenduta egongo da programa.
2. Proiektu bakoitzean gutxienez bi Euskampus Erakundek parte hartu behar dute, eta horietako batek lidergoa gauzatu behar du.
3. Euskampus Erakundeak izango dira programaren zuzeneko onuradun bakarrak.

2. artikulua. – Ikerketa proiektuen orientazioa.

1. Ikerketa proiektuak honako arlo tematiko hauetan kokatuko dira² eta argi eta garbi identifikatu behar dute zer erronkari erantzuten dioten eta horrek gizartean nolako eragina izan dezakeen:

Euskampus programa eta COVIDa

Hainbat ikerketa eremu, misio bakarra



Oinarrizko zientzia, aplikatua, teknologia, giza zientziak - diziplinartekotasuna

¹ Euskampus Erakundetzat hartzen dira haren Patronatuko kide izanik ezagutza sortzen duten erakundeak: UPV/EHU, Tecnalia, DIPC eta Bordeleko Unibertsitatea.

² Esparruak zabalak eta argigarriak dira; gainera, esparru bakoitzaren barruko ildoak orientagarriak dira eta ez dituzte baztertzen irudian aipatu gabeko beste ildo posible batzuk.

2. Proiektuak oso fokalizatuta egon daitezke arazo zehatz batean, edo izaera zabalagoa izan dezakete. Argi eta garbi diziplina artekoak/gaindikoak diren proiektuei emango zaie lehentasuna³, bereziki, jakintza arlo ugari biltzen dituzten proiektuei (zientziak, osasun zientziak, ingeniariak eta arkitektura, arteak eta humanitateak, gizarte zientziak eta zientzia juridikoak).

3. artikulua. – Ikerketa proiektuen iraupena.

1. Proiektu guztiak 2020ko eta 2021eko ekitaldietan garatuko dira. Edonola ere, 2021/12/31n amaituko dira gehienez.

4. artikulua. – Euskampusek ekarritako finantzaketa.

1. Euskampusek emandako laguntzen gehieneko kopuruak hauek izango dira: proiektu bakoitzeko 50.000 euro, eta erakunde bakoitzeko 20.000 euro.

2. Parte hartzen duten taldeek dituzten beste laguntza edo funts batzuen baterako finantzaketaren izaera izango dute laguntzek:

- Lehentasuna emango zaie eskatutako edo abian jarritako proiektuen osagarriak direla frogatzen duten proiektuei, nola banakakoei hala kolektiboei, baldin eta identifikatutako erronkari erantzuten badiote.
 - Tokiko, estatuko eta, batez ere, nazioarteko beste deialdi batzuetara proiektatzeko gaitasuna dutela frogatzen duten proiektuei lehentasuna emango zaie, eta Euskampusen laguntzaren bidez sartuko dira programa horietara.
3. Euskampusek emandako laguntzak erakunde onuradunei transferituko zaizkie, erakunde bakoitzaren barne prozeduren arabera kudea ditzaten. Proiektua gauzatzeko baino ez dira erabiliko, eta ezin izango dira zeharkako kostuak kargatu. Honako hauek ordaindu ahal izango dira:
- Proiekturako zuzenean kontratatutako langileen kostuak, eta Tecnaliaren kasuan, baita bertako langileek egindako lana ere.

³ Diziplinen arteko lankidetzaren hiru maila bereizten ditugu

- Monoa: diziplina baten barneko lankidetzak. Adibidez, partikula esperimentalak aztertzen dituzten fisikarien eta alor horretako teorialarien artean.
- Multia: diziplina bakoitzak bere ezagutza ekartzen du balio kate lineal bat sortzeko. Adibidez, neurozientzialarien eta neurologo klinikoaren artean, ikuspegi traslazonal batekin, laborategitik hasi eta pazienteraino.
- Interra: lankidetzak ikuspegi, lengoia eta erronka komunak bateratzea eskatzen du, baina diziplina bakoitzak bere metodologiak mantentzen ditu. Adibidez, informatikari, ingeniari, fisikari eta matematikarien artean, CERN bezalako partikulak, laborategi batean.
- Transa: lankidetzak heldu beharreko erronka zehaztean hasten dira, diziplinen arteko eta akademiatik/ikerketatik kanpoko erakundearen arteko aberaste gurutzatua dago. Horixe da erronka sozial eta global handiei aurre egiteko behar den lankidetzak, hala nola klima aldaketari edo biztanleriaren zahartzeari, misioen esparruan.

- Hainbat gauzatze kostu, suntsikorak, materialak, argitalpenak, bidaiak, etab.

5. Artikulua.- proiektuak aurkezteko prozedura

1. Proposamenak erantsitako ereduaren arabera egingo dira – Erresilientzia COVID-19 Euskampus Proiektuen memoria. Proiektu bakoitzeko ikertaldeko kideen curriculum vitae laburtuak erantsiko dira, MICINN formatuaren arabera. FECYT-en curriculum vitae normalizatuaren aplikaziotik automatikoki sortzen den curriculum vitae laburtua (CVA) ere baliozkoa izango da. Burdeos Unibertsitateko edo bere Nouvelle Aquitaine-ko entitate kideetako ikertzaileek ANR- Agence Nationale de la Recherche-ak proposatutako formatuan aurkeztu ahal dute beraien CV-a.
2. Proposamenak posta elektronikoz bidaliko dira covid19@euskampus.eu helbidera, #resiliencia_euskampus erreferentziarekin, 2020 uztailaren 27an 17:00 orduak baino lehen.
3. Aurkeztutako proposamena egoki ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezko irizitako bestelako argibide edota agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio erakunde parte-hartzaileari Euskampus Fundazioak.
4. Deialdi honetan parte hartzeak haren oinarriak eta ebazpena onartzea dakar berekin, eta ebazpena ezin izango da aurkaratu.

6. artikulua. – Proposamenak onartzea eta zuzentzea.

1. Proposamena oso-osorik betetzen ez bada, edo prozedura honetan eskatutako dokumentazioarekin batera aurkezten ez bada, interesdunari eskatuko zaio (ahal dela, posta elektronikoz) **3 egun balioduneko** epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.
2. Proposamenean eskatutako memoria ez biltzea zuzendu ezin den akastzat joko da.

7. artikulua. – Aurkeztutako diziplinarteko ikerlanen ebaluazioa.

1. Lanen ebaluazioa proposamenetan bildutako zientzia gaietako aditu talde batek egingo du; aditu horiek independenteak izango dira eta ikerketa ospe aitortua edukiko dute, baita ebaluazio esperientzia ere.
2. Ebaluazioa egiteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, dagozkien haztapenekin:
 - a) Proposamenaren kalitate zientifiko-teknikoa, garrantzia eta bideragarritasuna: % 25
 - b) ikertaldearen kalitatea, ibilbidea eta egokitasuna: % 20
 - c) Eskualdean eta/edo identifikatutako *stakeholder*etan espero den aplikagarritasuna/eragina: % 20

- d) Hainbat erakundetako taldeen integrazioa eta diziplinartekotasun maila: % 20
 - e) Aurrekontua lan planera egokitzea, baterako finantzaketaren eskema eta beste laguntza batzuen palanka efektuaren proiektzioa: % 15
- 3.** Ebaluazio prozesuaren emaitza gisa, honako hauek ezarriko dira:
- a) Ezestea proposatzen diren proposamenen zerrenda, proposamen horiek ezestea proposatzeko arrazoiekin batera.
 - b) Ezarritako ebaluazio irizpideetara hobekien egokitzen diren lanen zerrenda lehenetsia, dagokion ebaluazio arrazoituarekin batera.
 - c) Adituen taldeko erabakiak behin betikoak izango dira, eta aho batez edo gehiengo soilez lortu ahal izango dira. Adituen txostenak eta eztabaidak konfidentzialak izango dira.

8. artikulua. – Ebazpena: epeak eta prozedura.

- 1.** Behin betiko ebazpena –funtsean ebaluazioan oinarrituko dena– ematea Euskampus Fundazioari dagokio.
- 2.** Ebazpenean zehaztuko da proposamena onartu ote den edo, hala badagokio, ukatu ote den; onartu bada, proposamena gauzatzeko epeak eta guztira emandako zenbatekoa ere adieraziko dira ebazpenean, baita erakunde bakoitzari esleitutakoa ere.
- 3.** Ebazpena emateko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.